

**BERMEOKO UDALEKO HERRI-ARGITERIA INSTALAZIOEN ENERGIA-ZERBITZUAK,
MANTENU ETA BERME OSOAREKIN**

KONTRATAZIO MAHAIAREN BATZAR AKTA (4)

Bermeoko Urian, Udaletxean eta honen Intxausti kaleko batzar gelan, 2016ko uztailaren 21ean, goizeko 9:00ak direnean, batzar publikoan batzen dira:

Benito Ibarrolaza Munitiz J^a, Mahaiburuaren ordezkoa
Aingeru Astui Zarraga J^a, zinegotiza
Amaia Gaztelu Imatz A^a, zinegotzia
Karmele Muñoa Arrigain A^a, Udal Idazkaria
Eduarne Urrutia Uriarte A^a, Udal Kontuhartzailea
Igor Santa Eufemia Bordas J^a, Kontratazio mahaiko idazkaria.

Uztailaren 12an Izartu Bermeo eta Guzan Udal taldeek prozesu hau bertan behera uzteko eskaera aurkeztu dute Udal erregistroan. Aurretiaz apirilaren 7an Izartu Bermeo Udal taldea eskaera berdina egin zuen baina Zerbitzu Batzordean prozesuarekin jarraitzeko proposatu zen.

Kasu honetan, nahiz eta Udal Jarduneko Idazkariaren txostenean azaltzen den moduan, ez legetasunik ez dagoenez ezin dela prozesuari uko egin argi dagoen arren, kontratazio mahai honetatik kontu hau hurrengo Osoko Bilkuran, kontratazio organo bezala, aztertzea proposatzen da.

Eta gehiago barik, amaitutzat ematen da ekintza hau, goian aipatutako egun eta toki berean, Idazkari legez ziurtatzen dudana.

